

Edurne Azkarate,
Paul Urkijo
eta Eneko Sagardoi,
atzo, Donostian.

JON URBE/FOKU



Paul Urkijoren 'Irati' filmak hasiko du Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 33. Astea, gaur. Iratiren eta Eneko Aristaren pertsonaien bidez, mundu kristaua eta paganoa elkartu dituzte Edurne Azkaratek eta Eneko Sagardoi. Laneko esperientzia eta Urkijoren «bulkada» nabarmendu dituzte.

Ezpatak eta sorginkeria Erdi Aroko Euskal Herrian

Andoni Imaz Donostia

Orain lau urte, Errementari aurkezteko Madrilerako bidean zirela, buruan zera-bilen ideia bat kontatu zion Paul Urkijok Eneko Sagardoiri, gogo biziz: «Esan zidan: 'Zu izango zara Eneko Arista, eta istorio mi-

tologiko bat egongo da...'; eta nik: 'Bai, bai...'. Inork gutxiak -aktoreak berak ere ez- irudikatu zezakeen VIII. mendeko Euskal Herrian girotutako ekoizpen handi bat, historia eta mitologia nahasten dituena. Azkenean, egin dute Irati, eta agerikoa dute asmo handi haiei gustuko itxura bat eman izanaren poza. «Euskal Herriari, euskal mitologiari eta euskal kulturari egindako omenaldi bat da,

bihotz-bihotzetik», esan du zinemagileak. Gaur estreinatuko dute filma Euskal Herrian, Donostian, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 33. Astearen irekieran; sarrera guztiak saldu dituzte.

Errementari-k ere inauguratu zuen jaialdia, 2017an, baita ikuslearen saria irabazi ere. Irati-k sari hori lortu du jada Sitgesko Zinemaldian, eta efektu berezirik onenena ere bai. «Plazera eta oho-

rea» da filma erakustea, Josemi Beltran jaialdiaren zuzendarientzat. Atzo aurkeztu zuen, Urkijorekin, Sagardoirekin, Edurne Azkaraterekin eta Manu Paino Baineteko ekoizlearekin batera. Otsailaren 24an estreinatuko dute Hegoaldeko zinemetan.

Filma egiteko borroka

Painok azaldu duenez, finantza- ketak ekarri dizkie buruhausterik

handienak, baina, Urkijorentzat, ez da lan erraza izan Orreagako gudua eta izaki mitologikoak abentura batean harilkatzea. «Kontatu nahi dudana bihotzetik eta tripetatik dator; hori erabiltzen dut oztopoak gainditzeko».



Kontatu nahi dudana bihotzetik eta tripetatik dator; hori erabiltzen dut oztopoak gainditzeko»

Paul Urkijo
Zinemagilea

«Gorputzik ez duten izakien irudiak sortzeak gure kultura aberasten du. Inportantea da aldiro herrinterpretatzea»

Edurne Azkarate
Aktorea

«Dizkiek hartu duten forma, atmosfera erakoa, oso zaila da lortzen. Bulkada hori hor dago, ikusezin baina presente»

Eneko Sagardoi
Aktorea

«Film epiko bat ez da urtero egiten, ezta bost urtean behin ere», azpimarratu du Sagardoi. Hark, esperientzia profesionalaz gain –«izugarria izan da: zaldian ibiltzea, ezpatak, munstroak, kobazuloak...»–, poz «personala» ospatu du: «Beti sumatzen dugu zer dagoen pelikula baten atzean, baina hunkigarria izan da Paulek bere bulkadei zintzo eusteko egin duen borroka ikustea».

Gidoia idazteko abiapuntua Jon Muñozek idatzitako eta Juan Luis Landak marraztutako *El ciclo de Irati* (Irati ko zikloa) izan da Urkijorentzat. «Ikusi nuen pertsonaia horiek garatuz gero edan nezakeela haren oinarriko iturritik. Enekoarekin eta Iratirekin iritsi nintzen hara, eta askoz gauza gehiago atera nituen, zeharo bestelakoa den istorio bat sortzeko».

Azkaratek gorpuztu du Irati: «hark eusten dio pelikulari, bere gihar guztiekin», Sagardoiren hitzetan. Irati mundu errearen eta magikoaren artean dabil, eta aktoreak alde gizatieretik landu du: «Inportantea zen Iratirengandik ez urruntzea; epaituz gero, hark behar duen egiatik urrunduko nintzateke». Horregatik, haren gatazka «hurrera» eraman du: «Zauri bat du jaino denetik, eta gizarteak ez onartzetik, disidentziatik eta bakardadetik sortu du bere izaera. Horrek lagundu dit pertsonaia humanizatzen».

'Azkenpartida', haur aurpegi duna heriotzarekin

Irati-k inauguratuko du Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, baina, haren aurretik, Igor Salutregiren *Azkenpartida* film laburra pantailaratu dute. Oihua programaren bidez egin du, Donostia Kulturaren, Donostia Film Commissionen eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren bultzadarekin.

Protagonista Ekhi da, 10 urteko haur bat. Lagunekin futboleko aritzera doala, neskatila misterioitsu batekin topo egingo du, eta hark bidez ezezagun batetik eramango du. Salutregik heriotzaz hitz egin du bere fikziozko lehen lanean, haurren «begirada garbiaren» bidez: «Haiek duten magia hori gehiagotan behar dugu gizarteari begiratzeko».

Filmeko istorioaren bihotzean dago Mari jaunikosa, Itziar Ituño antzeztoa, karakterizazio berezi batekin; pertsonaiaren diseinua da pelikulako irudirik indartsuena. Mari bereziki interesatzen zaio Urkijori: «Ez da ipuin bat, ez da gauza batzuk egiten dituen pertsonaia bat; gizarte erreindoeuropar baten aztarna da, eta bisualki eta narratiboki justifikatu egin behar duzu. Mari ez da sorgin bat, baizik eta ama lurra bera».

Irudia duena, bada

Lagun batek egin zion galdera Azkarateri: «Ez duzu pentsatu agian ume pila batek izan nahiko duela Irati?». Irudikatzea bera garrantzitsua iruditzen zaio aktoreari: «Gorputzik ez duten izakien irudiak sortzeak gure kultura aberasten du. Inportantea da aldiro ekartzea eta berrinterpretatzea».

Errementari-rekin konparatuta, izaki horiek guztiak filmeko giroan txertatuta ikusten ditu Sagardoik: «Izakiek hartu duten forma, atmosfera erakoa, osozaila da lortzen. Bulkada hori hor dago, ikusezin baina presente: paisaian, naturan, arroketa, erretetan... Aurpegia jartzeaz gain, hori guztia denok izango dugun memoria sensorialaren parte da».

Urkijok badaki ez dela erraza izango filmez film neurri berean handitzea, baina ideia bat lantzen ari da, eta argi du bere tonuari eta generoari eutsiko diela. «Ez da komedia kostunbrista bat izango, beraz», zirrikatu du Beltranek. «Ez baldin bada orko batzuen etxean girotutako komedia bat, edo trollen ohiturei buruzkoa... Ni beti munstroekin».

BERRIA
Ostrala, 2022ko urriaren 28a

Kultura 29

EPPUR SI MUOVE
Begoña del Teso



Adarbakar gainean, sua lagun, Andra Mari

Sua Berarekin dabil gaur, misterio guztien gau eternalean ibili den moduan. Sua. Dabil. Berarekin.

Su hartuko dute gaur pantailak. Donostiakoek. Viktoria Eugenia saloikoek, Antzoki Zaharrekoek nola. Su hartuko dute pantailatan Arrikruz, Leze eta Pozalagua kobazuloek. Su hartuko Antso III.a Nagusiak eraikitako Loarre gaztelu Aragoikoak. Su hartuko Irati basoak, non, kontu jakina da, Albreteko Joana erregina txit agurgarriaren hezur azkenek eta hats ilunabarrekoak hegan egiten duten.

Sua. Dabil. Berarekin. Unikornio belztu gainean. Dator. Bera. Anboton (Mariurrika koban, Artaungo Sakonean) etxaleku izanda, mendi guztietako erraietan dagoen Bera.

Mari deitzen diote. Diogu. Aragoi, berriz, Mariuenea diote, mendeetan zehar bertan mintzo zen Nafarroako mintzoarekin akordatu.

Sua. Dabil. Berarekin. Gaur estreinatzen baita Donostian Paul Urkijo Alijoren *Irati* filma. Bi emanaldi izango dira. Beste bat gehitu dute, azaroaren 4an. Be-

randutuko baita, atzeratuko baita gure etxe ondoko areto korrientean estreinaldi ofiziala. Erabaldi traketsa hartu dute, nire irudiko, banatzaileek, 2023ko otsailaren 24rako geroratu. Orain behar zuen izan. Orain, Sitgesen izandako txalo eta sarienez zaparrada baretu ez den orain honetan.

Sua. Dabil. Berarekin. Bai, ofizialki, printzipioz eta gidoiak oinarri hartutako *Irati*ren zikloa komikiari leial jarraituz, aitortu behar da pertsonaia nagusia bera ez dela. Inperio Karolingioaren aurka ziharduten jauntxo burenuzaga zen Izaban jaiotako Eneko Arista edo Eneko Enekoitz jaun prestua dugu, bai, protagonista. Arabarrek Wannago deitutako huraxe.

Borrokan zein amodio jokotan betirako bere ondoan, basoko eta uretako kreatura bat. Defentsan eta erasoan, labanarekin ederki moldatzen da Irati, muskerraren antzera, oinetan ezkatu dituen izakia, kontakizunari, pelikulari eta baso sakratuari izena ematen diona.

Bai, Kordobako emirren mendeko izatea erabaki arren, era berean, artean existitzen ez zen Na-

farroako erreinuaren zutabe lehena izan zen Oneka andrearen semea eta lur honetako jainko guztien leinukoa zen neska dira protagonistak. Baina Bera da Suarekin Batera datorriguna. Unikornio belztu gainean. Bera. Mari. Anbotokoa. Iratikoa. Leze. koa. Aragoikoa. Andra. Jabe. Mari.

Ez, ez dator sasi guztien gaineatik eta hodei guztien azpitik, baizik eta Alberto Vazquezek eta beste zientok pantailatan marrazturiko beste baso bat (baso guztiak ez ote dira BASOA?) babestuko duten adarbakarren gainean.

Izan ere, bai Errenterian, bai Iruñean, bai Gastelzen, bai Bilbon ikusgai da parekorik ez duen *Unicorn Wars* film garrantzitsua, eder, basa. Gerrako zinema oro oinarri hartzen duena, gure panpinekin izan dugun hartu-emanaz azpikoz gora jartzen duena. Ikusi eta gero, zuen peluzeko hartzei beste era batez begiratu diezue, eta ulertuko hartzaeren besarkada ez dela maitasun keinu bat. Are gutxiago hartza drogak harturik eta odol gose badator, fusila eta granadak atzaparretan.

Bidez, Donostiako Beldurrezkoan datorren asteazkenean pantailan izango den Pablo Polledreren *Loop* animaziozko laborerrepikazinean harrapatuko dituzu *Wars*-en parte hartu duten hainbaten izenak; ekoizpenean Ivan Miñambres; animazioan, Arkaitz del Río; marrazkien honoan definizioan, Leire Acha. Eta musikan, Joseba Beristain.

Sua. Dabil. Berarekin. Unikornio gainean dator. Mari. Andra. Ta Jabe. Hartzak ere mendeko izango zituen Jaunkosa. Gurea. Besteena ere bai. Begizta batean ikusi beharko genituzke *Irati*, *Unicorn Wars* eta *Loop*. Sutan baitira hirurak.



Paul Urkijoren *Irati* filma. BERRIA



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN EUSKARAZ

ANTZERKIA

Hondamendia. Artedrama + Axuti
Gazteszena (Egia K.E.)
Urria 28 - 30 • 19:30

Oilar bat dago zure teiatuan
Imanol Larzabal Aretoa (Lugaritz K.E.)
Urria 29 • 18:00

Plaza Abordaia!
Larratxo K.E.
Urria 30 • 18:00

ERAKUSKETAK

Bisita gidatua | 'Denboraren ilusioa'. Ruth Orkin
Kutxa Kultur Arreguea
Abuztua 07 - Azaroa 06 • 17:30

Carlos Sanz | bisita gidatua
Kubo Kutxa Aretoa
Urria 29 • 17:30

ELIZKAZA

La Jarana Pista Jolasa
Euskal Itsas Museoa
Abuztua 19 - Abendua 31 •
Museoaren ordutegia

Paperezko museoak: Aran Santamaria
San Telmo Museoa
Urria 29 • 17:00

Kosmos | Hilabeteko zerua eta ilargiaren faseak
Eureka! Zientzia Museoa
Urria 30 • 12:30

Antiguako gau beltza
Antiguako Frontoia
Urria 31 • 16:30

Altzako Gau Beltza
San Martzial plaza
Urria 31 • 18:00

Julen Castilloren esperientzia
EITBko Goazen telesailen
Ikasbide Kultur Elkarte
Azaroa 03 • 19:00

ZINEMA



"Txiza komunean" filmaren aurkezpena: Barrexa taldea
Victoria Eugenia Antzokia
Azaroa 02 • 19:00

Unicorn Wars
Antzoki Zaharra
Azaroa 03 • 19:30

www.donostiaeuskaraz.eus